

# Leioa

## Leioan gozatu



Egileak:

A.I.20.

LH5 A



# Leioa gozatu

Jade



## Aurkezpena

Kaixo, lagunok Jade naiz.

Â Betidanik bizi izan naiz hemen.Â Leioara etortzen diren turisten kulturak eta ohiturak ikasten saiatzen naiz.

Leioara etorri.

-Â Welcome to our town!

-Â Bienvenidos a nuestro pueblo!

-Â Ongi etorri gure herrira!

## Presentación

Hola amigos, soy Jade.

Siempre he vivido aquí. Intento conocer las culturas y costumbres de los turistas que vienen a Leioa.

Ven a Leioa. Â¿Quieres pasar un maravilloso día descubriendo los tesoros de mi pueblo?

# Leioa begirada batean

## Kokapena

Iberia penintsula barruan, Euskal Herrian. Bizkaian kokatzen da, ipar mendebaldean, ipar isurialdean kokatzen da.

## Erliebe-elementuak

Parke naturalak (Artatza eta pinosolo) eta mendiak (Serantes).

## Bestelako informazioa


Serantezek 451,9 metroko altuera du.

32.172 biztanle ditu Leioak.



# ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

## ARTATZA



Artatza parkearen erdialdean jauregi bat dago. Jauregia oso handia eta zabala da, hesi batek inguratzen du eta borobil forma egiten du.

Jauregiaren eskuinaldean begiraleku bat dago eta begiralekuaren aurrean eskailera batzuk daude. Eskailera horiek iturri batzuetaraino eramaten zaituzte.

Beherago, parke bat eta taberna bat daude. Jauregiaren ezker aldean txakurrak egon ahal diren landa bat dago.

# ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

## PINOSOLO



Pinosoloko atean bide bat dago, landa bateraino eramaten zaituena. Landa hori oso handi da.

Bidean, ezkerretara egiten baduzu, beste bide batzuk aurkituko dituzu.

Ordea, bidean aurrera jarraituz gero, magnolioen parkea aurkituko duzu.

Aurrerago jarraitzen baduzu ariketa fisikoa egiteko parke bat eta skate park bat aurkituko dituzu.



# ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

## KULTUR LEIOA



Bere barruan, liburutegi bat, marrazteko txoko bat, ikasteko toki bat eta auditorio bat daude.

Kanpotik ikusita handia da, sei pisu ditu, lauki zuzen baten itxura du eta paretak beharrezko kristalerak ditu kanpora begiratzeko.

Atetik sartuta ezkerrera egiten baduzu eskailera batzuk aurkituko dituzu 2. pisura eramango zaituztenak, eskuinera biratuz gero harrera lekua aurkituko duzu, bertan, informazioa hartu eta zinemarako edo antzerkietarako sarrerak hartu ahal dituzu.

# ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

## ARTATZA JAUREGIA




Artatza jauregia kanpotik ikusita handia, zabala eta altua da.

Hesi bat dauka, jauregia inguratzen duena.

Jauregiaren aurreran eta atzean hainbat lorategi daude, aurreko lorategietako baten erdian pertsona baten estatua bat dago ( diskobolo ).


Lorategiaren inguruan dagoen bidean argiak daude, gauz ere ikusi ahal izateko.

# Zirkuituaren mapa



## Legenda

Norabidea



Erreferentzia-puntua



Abiapuntua



Interesguneak



Helmuga





# Zirkuituaren deskribapena

## Zure zirkuituaren lehen urratsa



- Abiapuntutik lehen interesgunera joateko, (Kultur Leioatik Artatzara).

### Deskribapena

Ezkerrera biratu eta aurrera egin, Leioandi kaletik; gero, eskuinera biratu eta jarraitu aurrera Artatza parkearen belardia arte.

# Zirkuituaren deskribapena

## Zure zirkuituaren bigarren urratsa



- Lehenengo interesgunetik bigarren interesgunera joateko, (Artatzatik Pinosolara)

### Deskribapena

Artatzan zaudela, aurrera egin eta zebra bide bat aurkitzerakoan, gurutzatuz gero, Pinosolo parkean egongo zara.

## Zure zirkuituaren hirugarren urratsa



- Bigarren interesgunetik hirugarren interesgunera joateko, (Pinosolotik Ondizera)

### Deskribapena

Pinosolon zaudela, ezkerrera biratu eta aurrera egin Begoñako ama baino apur bat atzerago. Bertan, ezkerrera biratu berriro eta aurrera egin Torresolo kirolgunerarte. Hor egonda, biratu eskumara eta egin aurrera Ondizerarte.



# Zirkuituaren deskribapena

## Zure zirkuituaren laugarren urratsa



- Hirugarren interesgunetik laugarren interesgunera joateko, (Ondizetik San Juanera)

### Deskribapena

Ondizen egonda, aurrera egin, Â bihurguneÂ batetik sartu bidea eskuinetara utziz San Juan kalerarte.

## Zure zirkuituaren bostgarren urratsa



- Laugarren interesgunetik helmugara joateko (helmuga eta abiapuntua berbera da), (San Juanetik Kultur Leioara)

### Deskribapena

San Juan kalean egonda, ezkerrera biratu eta aurrera joan Sakoneta kiroldegia zeharkatuz; bertan, eskumara biratu eta egin aurrera Kultur Leioararte.

# Bisitarienezako gomendioak

Gomendatzen dugu lurrera zaborrik ez botatzea.

Neguan bazatoz aterkia ekartzea gomendatzen dizugu.

Recomendamos no tirar basura al suelo.

Si vienes en invierno, te recomendamos llevar paraguas.

Do not throw garbage on the ground

If you come in winter, we recommend you bring an umbrella.